



Funtsezko jarduerak

Gure proiektuaren kasuan, aplikazio bat denez, funtsezko jarduera nagusia plataforma digitalaren garapena eta kudeaketa da. Aplikazioa sortzea, mantentzea eta eguneratzea ezinbestekoa da negozio-ereduak funtziona dezan, baita erabiltzaileen erregistroa, profilen kudeaketa eta arropa-trukeen antolaketa ere. Jarduera horiek guztiak dira gure enpresarekin lotura zuzena dutenak, eta, beraz, ezin dira kanpoko enpresen esku utzi, guk laurok kuadetuko dugu.

Bestalde, arazoak konpontzea ere funtsezko jarduera da. Erabiltzaileen artean sor daitezkeen gatazkak kudeatu behar dira, trukeetan egon daitezkeen arazoei irtenbidea eman eta plataformaren erabilera segurua eta bidezkoa dela bermatu. Jarduera hauek garrantzitsuak dira erabiltzaileen konfiantza lortzeko eta gure balio-proposamena betetzeko.

Ekoizpenari dagokionez, gure kasuan ez da produktu fisikorik ekoizten, baina aplikazioaren edukia, diseinua eta erabilera-arauak sortzea eta eguneratzea beharrezkoa da. Horrela, erabiltzaileentzako esperientzia erraza eta erakargarria eskaintzen da.

Azkenik, komunikazio eta sustapen jarduerak ere ezinbestekoak dira proiektuak arrakasta izan dezan. Sare sozialen bidez aplikazioa ezagutaraztea, erabiltzaile berriak erakartzea eta komunitatea sortzea funtsezkoa da. Horretarako kolaboratuko dugu influencerrekin.

Guk eramango dugunez enpresa aurrera, ez dugu izango ordutegi finkorik, beraz, behar denean egongo gara konektatuta appa kudeatzeko. Agian etorkizunean, appa arrakastatsua izaten bada, pare bat langile kontratatuko ditugu beharrezkoa bada, eta haien ordutegia erabakiko genuke.